

Munduaren ertzak

Badira poetak, José Luis-
sek zioen bezala, bizi-
tza min zaienak eta
min horren isla dute-
na beren poesia.

Miren Agur Meabek ere, *Bitsa eskuetan* bere azken liburuaren aurkezpenean halaxe aitortu zuen: minaren, esperientziaren eta bitsa hitsaren garaipena zela liburua. Poesiak mina gainditzeko lagundu ziola eta heldutasunaz jabetzen.

Badira, oster, beste poeta batzuk, inspirazio iturri edo estakuru bila ari-
tzen direnak han eta hemen, bizitza harrapatzen ez ezik, hurrupatzen ere badakitela erakusteko larritasun ezin-
bestekoaz. Esperientziak baino areago harridurak irabazten dituenak eta deskubrimendua bera dutena lehengai.

Biak ala biak zilegi izanik, noski, irakurlea izanen da erabakiko duena zein den bere bizitza zoriekoagoari edo hitsagoari ekarpenik egingo diona, eta bere zama arintzen lagunduko; zein izanen den, finean, esperientzia heldu eta benetako batean murgilduko duena.

Baina aitor dut, benetan, harritu egin nautela inspira-
zio bila dabilen poeta gazte baten ahotan euskaldun “zintzoak” klasista eta moderno-
etan baino areago klasista eta liberalen artean sailkatzen dituela irakurtzeak. Eta are gehiago, klasistatzat jotzeko erabilitako irizpi-
deak, euskal kulturaren produktu hain-
baten kontsumoa aipatzen delarik (ez dakit, jakin, aurrez sailkatutako pro-
duktuak ote diren, zalantzan jartzen dudak arren); eta ustez liberal edo modernoak liratekeen euskaldunak (nahiz eta oporrak Londonera pasatze-
ra joan; bide batez esanda, ez dela inolako bekatu, nire ustez), pub retro

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Sarasola

batean kokatzen direnean. Eta, batzuk zein besteak “ustez” bereizten dituen adin aldea tarteko, hain bizi-
garritzat jotzen den anekdo-
ta, bizitzak bere horretan eskaintzen duen experien-
tzia arrunt bat baino ez denean.

Badirudi, bizitza hurrupa-
tzen dakigula demostratze-
ko eta zurrupaketa horretatik lortutako

nektarra den emaitza “ustez” poetikoa edertzeko, muturra ezagutu behar dugula. Harago dagoena. Ustez ezeza-
guna dena (norentzat ezezaguna, ordea?).

Muturra bizitza bera da. Muturra ez dago ideologia baten edo bestearen baitan. Ez eta adinean ere. Ez dago Anjel Lertxundiren *Eskarmentuaren paperak* saiakera saritura irakurtzea besterik.

Muturra bizitza arrunta da; delako muturra, begiradan dago.

Muturra ikusi ahal izango dugu, adibidez, urrutiegi joan gabe, Espainiako Gobernuaren aldaketa berrietan, zeintzuetan emakumezkoek zuzendutako alorrek porrot egin duten edota hauen porrota agerrarazteak kezka-
rik agertu ez duen. Axola ez dion irudi. Eta kezka sorta-
razten dit baita, *reality show*ak hainbeste behar dituen

herrialde honetan, oraindik, gobernu-
ko aldaketen berri eman ondoren, iruz-
kinik hedatuena, Pajin andrearen atze-
aurreak sortutakoak izatea.

Ez, ez dago erbesteko pub retro batera joan beharrik anbiguetatez jan-
tztako sexu esperientzia bat bizitzeko. Muturra, esan bezala, egunerokoan baitago; ertzez jositako egunerokoan.

Ertz batean kokatzeak, mundua ez du mutur bakar egiten. ■

«
Aitor dut, benetan, harritu egin nautela
inspirazio bila dabilen poeta gazte baten ahotan
euskaldun ‘zintzoak’ klasista eta modernoetan
baino areago klasista eta liberalen artean
sailkatzen dituela irakurtzeak
»